

PRENTSA OHARRA

Bilbon "Kanthoria eta Auto-tunea" erakusketa dago ikusgai, euskarazko musikaren historian zeharreko ibilbidea

Azaroaren 6tik abenduaren 4ra Abando Udaltegian

Bilbo, 2025eko azaroaren 6a — Azaroaren 6tik abenduaren 4ra, Abando Udaltegiak "**Kanthoria eta Auto-tunea**" erakusketa hartuko du, **Musika Bulegoak Bilboko Udalaren** laguntzarekin eta **Eusko Jaurlaritzak** eta **Orona Fundazioaren** babesarekin bultzatutako proiektua.

Xabier Erkizia ikertzaile eta soinu sortzaileak komisariatu du erakusketa, eta euskarazko musikaren historian zehar bidaia bat proposatzen du, ahozko tradizioan jasotako lehen kantuetatik hasi eta musika sortzeko forma hibrido eta digital berrietara arte.

Erakusketa **Musika Bulegoaren 10. urteurrenaren harira** antolatutako jardueren parte da. Elkartea sortu zenetik ari da lanean euskal musikaren sektorea bultzatu, ikusarazi eta profesionalizatzeko, eta arreta berezia jartzen du euskarazko musikaren sustapenean. Erakusketa **EXPODISTRITO** programaren barruan kokatzen da, Bilboko Udalaren erakusketa zikloa, hiriko adierazpen artistikoak deszentralizatu nahi dituen.

"Erakusketa honek kalera atera nahi du Musika Bulegotik egiten ari garen lana, herritarrei euskarazko musikaren historia eta aniztasuna hurbilduz. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun gure hamargarren urteurrena proposamen ireki batekin ospatzea, atzera begiratzen gonbidatzen gaituena, baita gure musika eszenaren etorkizunera ere", azaldu du **Ruth Manzano** Musika Bulegoa komunikazio arduraduna.

Euskararen historia soinudunaren ibilbidea

Bederatzi panel tematikotan egituratuta, "Kanthoria eta Auto-tunea" k **euskarazko musika sorkuntzaren bilakaera aztertzen du** begirada plural eta garaikide batetik. Erakusketak **material dokumentalak, irudiak eta entzuteko gailuak** konbinatzen ditu, publikoak historia honetako une garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izan dezan: lehen erregistro fonografikoak eta ahozko tradizioa, elektrifikazioa, sektorearen profesionalizazioa edo XXI. mendeko sonoritate berriak. "Kronologia bat baino gehiago, soinuaren eta hizkuntzaren irakurketa bizia da, denboran zehar elkar moldatu duten elementu gisa. Erakusketak 1uskal musikaz zer ulertzen dugun eta euskara esperimendazio eta nortasun gune izan den eta den birpentsatzeko gonbita egiten du", nabarmendu du Xabier Erkizia komisarioak.

"Harro gaude ekimen hau babesteaz; izan ere, gure herriko kultura-aberastasunari balioa emateaz gain, dibertsitatearen, profesionaltasunaren eta elkarriketaren aldeko apustua egiten du, musikaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko ardatz gisa", adierazi dute Orona Fundaziotik.

Jarduera egitaraua

Erakusketarekin batera, **publikoari irekitako jarduera-programa** bat egongo da, bisita gidatuak, mahai-inguru bat eta musika-emanaldiak barne:

- Azaroak 6 (19:00) **Inaugurazio ofiziala eta bisita gidatua** Xabier Erkiziarekin, eta ondoren Belako (formatu akustikoan), IbonRG eta Moxal taldeen zuzeneko hiru musika-emanaldi.
- Azaroak 20 (19:30) – **Mahai-inguru: Kantagintzaren joanetorriak**. Gidaritza: Xabier Erkizia. Parte-hartzaileak: Iban Urizar eta Sara Zozaya
- Azaroak 27 (19:00) – **Bisita gidatua** Jon Bagües musikologoarekin.

Datu praktikoak

- ✓ Erakusketa: Kanthoria eta Auto-tunea
- ✓ Datak: 2025eko azaroaren 6tik abenduaren 4ra
- ✓ Tokia: Abando Udaltgia, Bilbo (Barrainkua,5)
- ✓ Komisarioa: Xabier Erkizia
- ✓ Antolatzailea: Musika Bulegoa
- ✓ Babesleak: Eusko Jauriaritza eta Orona Fundazioa
- ✓ Laguntzailea: Bilboko Udala
- ✓ Sarrera doan.

Informazio gehiago eta elkarrizketak:

komunikazioa@musikabulegoa.eus

+ 34 688 843 119